

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAREN 2023ko UZTAILAREN 17ko BILKURAREN AKTA**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (aurrerantzean eLankidetzak) eta 2023ko uztailaren 17ko 13:30ean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, eta honako kide hauek bertaratu dira:

- Nerea Melgosa Vega andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetzak) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakariaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Gizarte Berrikuntzako aholkularia. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Osasun sailburuaren Kabineteko zuzendaria Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Fernando Iturriaga Ancín jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Martín Iriberrí jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Presentzialki bertaratu da.
- Bokala: Elsa Fuente Do-Rosario andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa. Telematikoki bertaratu da.
- Bokala: Oihana Etxebarrieta Legran andrea, Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko bokala. Telematikoki bertaratu da.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Presentzialki bertaratu da.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, Koordinazio Estrategikoko Zerbitzuaren Lankidetzako teknikari Ainara Arrieta, Koordinazio Estrategikoko Zerbitzuko arduradun Noemí De la Fuente eta Koordinazio Estrategikoko Zerbitzuko arduradun Alazne Camiña andrea bertaratu dira.

### **Sarrera**

Sailburuak hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honekin:

1. *2023ko ekainaren 5ean egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea*
2. *Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helarazteko proposamena*
3. *2023ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
4. *Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa*
5. *Galde-eskeak*

## **1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea**

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2023ko ekainaren 5eko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

## **2. Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helarazteko proposamena**

Presidenteak proposatu du "Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Legearen" aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helaraztea erabaki dadila.

Gogorarazi du gogotsu eta partaidetzan oinarrিতa lan egin dutela arau berri horren elaborazioan, Euskadiko sektore sozial eta instituzionalaren ekarpenak bilduta.

Ekainaren 30ean Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak emandako irizpena dela-eta pozik dagoela adierazi du, irizpen horretan batzordeak aurreproiektuaren elaborazioan jarraitutako prozeduraren oso balorazio positiboa egiten baitu eta euskarri juridikoa ematen baitio hiru administrazio-mailen –autonomikoa, foru-arlokoa eta udal-arlokoa– antolamendu instituzional berriari, Euskaditik sustatutako lankidetzaren eta elkartasun-politika euskarri horren bidez indartzeko.

Eta hitza idazkariari eman aurretik, eLankidetzaren talde osoa zoriondu du lege honetan jarritako ahalegin eta lan guztiarengatik.

Legearren informazio osoagoa eman du ondoren Paul Ortegak. Elaborazio-prozesuaren informazioarekin hasi du bere azalpena, izapidetze-fasean guztira erakunde sozial eta herritarren 26 alegazio jaso direla aipatuz, eta, horrekin batera, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek, foru-aldundiek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak, Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeak, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak eta

Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako beste 22 txosten ere jaso dira. Sailburuak aipatu duen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaz gain.

Azaldu du, halaber, hutsune garrantzitsuak dituen Garapenerako Lankidetzaren 1/2007 Legea hartzen dela prozesu honen abiapuntutzat eta hortik datorrela egungo erronkekin hobeto uztartzen den eta berriki onartutako 1/2023 Legearen (Espainiakoa), 3/2029 Legearen (Extremadurakoa), Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legearen, eta abarren, ondoriozko ingurune aldakor batean jarduteko gai den esparru berri baten premia.

Legearen helburuak zerrendatzen jarraitu du, honako hauek:

- egungo erronka globalekin bat datorren eta nazioarteko garapen-agendak bere egiten dituen euskal lankidetzaren politika batean aurrera egitea.
- Euskadiren konpromiso solidarioa indartzea gure nortasun-ezaugarrietatik: kalitate oneko lankidetzaren deszentralizatu bat, elkartasunean eta lankidetzaren publiko eta sozial sendoan oinarritua.
- Euskal lankidetzaren eragileen arteko koherentzia eta erantzukidetasuna hobetzen dituen erakunde-arkitektura berria finkatzeko aurrera egitea.
- Garapen jasangarriko politiken koherentzia bereizgarri duen eredu baterantz aurrera egitea, zeinak bide emango baitu araua euskal administrazioetatik eta administrazio horien barrualderantz hedatzeko.
- Euskadiko baliabide solidarioak mugiarazteko oinarria zabaltzea.

Azkenik, gaurko egunez aurkeztutako bertsioaren eta uztailaren 7an bidalitakoaren artean dauden aldaketak komentatu ditu, idazkuntzarekin lotutakoak, eta, horrekin batera, IZOk ziurtatutako euskarazko bertsioa falta dela, eta Ogasun Sailarekin adostutako xedapen gehigarri bakarraren azken idazkuntza. Horrekin batera, Eusko Legebiltzarrean dagoen EAEko Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen Legearen xedapen gehigarri bat sartzea ere proposatuko du.

Ondoren, egindako lan bateratua nabarmendu du presidenteak, eta Eusko Legebiltzarrak lege berriaren eztabaidari ekiteak eta legegintzaldi honetan azkenean onartu ahal izateak duen garrantzia ere azpimarratu du.

Martín Iriberrik hartu du hitza eta eLankidetzak egindako lana onetsi du berak ere, eta adierazi du aurreproiektua elkarrizketaren, adostasunaren eta partaidetzaren fruitu dela, betiere hobetzeko interesarekin. Puntu batzuetan lan egiten jarraitu behar dela ere adierazi du, eta izapidetze parlamentarioa luzea izango bada ere, testua aberastuko duela horrek guztiak.

Gauza bera egin du Oihana Etxebarrietak, eta gehitu du Legebiltzarrak elkartzeko, agerraldiak egiteko eta zuzenketak aurkezteko gune bat izan behar duela, testua aberastu ahal izateko eta izapidetze hori beharrik gabe ez luzatzea ere helburutzat hartuta.

losu Urrutiak, bere aldetik, legearen bilakaeraren errebaso bat egin du eta amaitu du azpimarratuz landu beharreko zenbait puntu daudela, hala nola % 0,7aren konpromisoari buruzko artikulua idazkuntza, prozesu burokratikoak arintzea edo zuzeneko lankidetzaren mugatzea.

Azkenik, presidentek onartu du ikaskuntza-prozesu bat izan dela, eta lege berria aberastuko duen eztabaida bat zabaldu behar dela.

### **3. 2023ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea**

Nerea Melgosak adierazi du zuzeneko dirulaguntzen zazpi proposamen eta jarduketako bi protokolo orokor aurkeztuko direla. Paul Ortegari eman dio hitza.

Idazkariak adierazi du beste sail batzuekin lan egiteko haien arteko lankidetzaren-esparru bat behar dela eta hortik datozela ondorengo protokoloak. Lehenengo protokoloa azalduz hasi da, kasu honetan, garapenerako lankidetzaren eta ingurumen eta jasangarritasunaren arloan, IHOBE Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-arloko sozietate-publikoarekin sinatutakoa.

Azaldu du protokolo honen bidez lortu nahi dena pertsona guztiek ingurumen osasuntsu eta seguru baterako sarbidea izatea dela, eta horrekin batera, klima-aldaketa murriztea, biodibertsitatea kontserbatzea eta ekosistemak zaintzea; IHOBEren rola sendotzea ingurumen-plangintzako politikak eta klima-aldaketa giza eskubideen ikuspegi batetik, lokal-global ikuspegi batetik eta Euskadin zein Hegoko herrialdeetan desparekotasunen aurka borrokatzeko ikuspegi batetik arintzeko eta aldaketa horretara egokitzeko politiken bultzatzaile gisa; politikek eta jarduketek garapenerako lankidetzaren helburuekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin izan beharreko koherentzia sakontzea.

Ondoren, eLankidetzak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Hezkuntza Sailarekin sinatu den bigarren protokoloa deskribatu du. Giza garapen jasangarria bermatzeko hezkuntza bultzatzeak duen garrantzia onartu dute bi sailek, Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren, Garapen Jasangarrirako Helburuen, Incheon-go Hezkuntza 2030 Deklarazioaren eta Dublingo Deklarazioaren ildotik.

Azaldu du helburutzat dituela pertsona guztiek hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezko baterako sarbide unibertsala izan dezatela bermatzea; Hezkuntza Sailak hezkuntzaren bultzatzaile gisa duen rola indartzea desparekotasunen aurka borrokatzeko herritartasun kritiko eta aktibo bat lortzeko; politiken eta jarduketaren koherentzia sendotzea garapenerako lankidetzaren helburuarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin.

Ondoren, 2023ko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak azaltzen hasi da idazkaria, eta adierazi du, lehenik, DAG Dialogue Advisory Group taldeari emandako zuzeneko



dirulaguntza, bere jarduera Laku Handien Eskualdean, Afrikako Adarrean, Mozambiken, Venezuelan eta Kolonbian garatu dezan.

Jarraitu du adieraziz talde armatuen, gobernuen, oposizioen eta nazioarteko eragileen arteko elkarrizketa politikoak erraztu nahi dituen erakunde bat dela, betiere indarkeria murrizteko, adiskidetzaren alde egiteko, eta talde armatuen desmobilazioan eta armagabetzean aurrera egiteko. Aurreikusitako aldia 24 hilabetekoa da 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 250.000€ da egindako ekarpena. Ahaztutako gatazkak murrizteko da baliagarria dirulaguntza hori, baita bakea sortzeko eta eraikitzeko ere.

Bigarrenik, Friends of Barefoot Collage elkarteari egin zaion emakida aurkeztu du Paul Ortegak, Zanzibar (Afrika) eskualdeko Pemba-ko eta Unguja-ko landa-komunitateetan garatuko dena. Emakida horri esker eraldatu egingo da emakumeek beren komunitateetan duten posizioa, eta osasuna, hezkuntza eta bizitzeko bitartekoak hobetuko dira 300 etxerentzat keroseno-erregaia desagerraraziz edo eguzki-panelak jarritz.

Beren komunitateetan “eguzki-ingeniari” bihurtuko diren 12 emakumeren gaikuntzaren bidez instalatuko dira panel horiek.

Genero-berdintasuna lortzeko eta emakumeak ahalduntzeko Nazio Batuen erakundeari “Atreverse a cuidar” (Zaintzera ausartu) proiekturako emandako zuzeneko dirulaguntza izan da aurkezten hirugarrena. Afrikako iparrian eta Ekialde Ertainean garatzen da programa, sei herrialde eraginpean hartzen dituen eskualdeko esku-hartzeen bidez: Maroko, Tunisia, Egipto, Palestina, Jordania eta Libano.

Programa horren esparruan egin eta argitaratu ziren genero-berdintasunerako gizonek eta emakumeek dituzten jarrerari buruzko ikerketa aitzindariak Gizonei eta Genero Berdintasunari buruzko Nazioarteko Inkestaren metodologia erabiliz estatuetan zein eskualdeetan. 400.000€ da dirulaguntzaren guztizkoa.

Azalpen horren ondoren, igorritako dokumentazioaren informazioa zuzendu du Noemí de la Fuentek, dirulaguntzaren hasiera-data azaroaren 1era aldatu eta abala salbuetsi dela adieraziz.

Ondoren, Sierra Leonan eguzki-instalazio fotovoltaikoen bidez eguzki-energiaren alorrean ekintzailtza eta enplegarritasuna sustatzeko EKI Fundazioari emandako laugarren dirulaguntzaren azalpenarekin jarraitu du, finantzaketa solidarioa eta gaikuntza teknikoa ahalbidetzeko emandakoa.

Programaren lehen helburua Lunsar herriko lanbide-heziketako Saint Joseph Technical Institute ikastetxean oinarrizko eguzki-energia fotovoltaikoan gaikuntza teknikoa lortzean datza. Ondoren, LHko ikastetxe berria ezartzeko laguntzaren bidez eta oinarrizko eguzki-energia fotovoltaikoaren arloan espezializatuta Bo herriko Don Bosco Salesiarren ikastetxean. Eta azkenik, pertsona graduatuen ekintzailtza eta laneratzea bultzatzeko, aukeren mapaketa bat egingo da eguzki-energia fotovoltaikoaren sektorean, eta

ekintzailletza moduluak barnean hartuko dira prestakuntza-programetan, baita networking aukerak ere.

141.867 euroko dirulaguntza da eta 2023ko abuztuaren 23aren eta 2025eko urtarrilaren 25aren artean gauzatuko da.

Bosgarren proposamena Nazioarteko Bake Brigadak erakundeari egindakoa da Afrikan eta Latinoamerikan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak erabat babesteko nazioarteko komunitatearen intzidentzia politikoa sustatzeko, eta giza eskubideak modu baketsuan defendatzen dituzten Afrikako (Kenya) eta Latinoamerikako (Kolonbia, Guatemala, Honduras eta Mexiko) giza eskubideen pertsona, erakunde eta komunitate defendatzaileen langunea babesten laguntzea espero da proposamenaren bidez. 200.000 euroko dirulaguntza da.

Paul Ortegak jarraitu du, eta adierazi du seigarren proposamena Euskal Fondoa Euskal Lankideen Tokiko Erakundeen Elkarteari zuzendutakoa dela, AKUAL Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakundearteko lankidetzaren programaren 2023-2024 urteko planaren finantzaketan laguntzeko, El Salvadorreko ekialdeko komunitateetan ur-zerbitzuen eta saneamenduaren estaldura jasangarria bermatuko duten azpiegitura sanitarioko inbertsioen ezarpenaren bidez, eta FOCARD-APS foroko herrialde kideen ur- eta saneamendu-zerbitzuen kudeaketako eta jasangarritasuneko gaitasunak sendotzea.

Noemí De la Fuentek gehitu du, deialdiaren igorritako dokumentazioari dagokionez, 1. klausula aldatu dela dirulaguntza honetan funtsen jatorria gehitzean.

Zerrenda amaitzeko, El Salvadorreko toki-garapenerako Emakumeen Elkarte Kolektiboari ematea proposatutako zazpigarren dirulaguntzari buruzko informazioa eman du idazkariak, Latinoamerikako eta Karibeko 15. Topaketa feminista finantzatzeko. 2004. urtean eratutakoa, esperientzia handia du eta 2023ko azaroaren 22tik 25era bitarte izango da San Salvadorren (El Salvador). 80.000 euroko asignazioa du.

Azalpena amaitutakoan, losu Urrutiak aipatu du jarduketa-protokoloak oso interesgarriak iruditu zaizkiola eta galdetu du ea beste sail batzuekin ere gertatzen diren, eta Paul Ortegak baietz erantzun du, protokoloak daudela Osasun Sailarekin, URArekin eta Gazteria Sailarekin, horixe delarik lankidetzaren zaharrena "Euskadiko Gazteak Lankidetzan" programaren bidez.

Beste sail batzuekin ezarritako protokoloari buruzko komentario horiei dagokienez, lankidetzaren sanitarioan parte hartzeko Osakidetzak ematen dituen baimenak aipatu ditu Imanol Zuluagak.

Eta azkenik Elsa Fuentesek agentzia zoriondu egin du beste sail batzuekin 2030 esparruaren barruan ezarritako protokoloak direla-eta, lagungarriak baitira ekintza interesgarriak eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak bateratzeko.

#### **4. Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa**

Azkenik, Paul Ortegak jakinarazi du 2023ko ekintza humanitarioko proiektuen deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik dagoela irekita (apirilaren 17an argitaratu zen) funtsak agortzen diren arte. Eta aurten 4.750.000 euroko aurrekontua izan dela abiapuntua, 500.000 euroko zabalkuntza izapidetze-fasean badago ere. Jarraitu du adieraziz Kontseilu Errektore hau egin den egunean 17 proiektu onartu direla, 1.353.708,47 euroko soberakinarekin oraingoz, eta 12 direla balioesteke dauden eskaerak.

Amaitzeko, azaldu du hurrengo Kontseilu Errektorean azalduko dela laguntza hauen emakida, eta laguntza bakoitzaren azalpen zehatza emango dela, lehenengo ebazpen honetakoak barne.

Alazne Camiñak hartu du hitza gehitzeko jasotako 30 eskaerak 17 herrialdeetatik datozela, eta gaur arte barematutako 18 proiektuetatik bat geratu dela kanpoan 50 puntuko gutxieneko puntuaziora iritsi ez delako. Bestalde, 12 izan dira deialdiari erantzunez proposamenak aurkeztu dituzten euskal erakunde eskatzaileak, eta haietatik 5 izan dira laguntzen gehienekoaren (2) esleipendun lehenengo emakida honetan. Acnur, Alboan, Ayuda en Acción, Farmamundi eta UNRWA dira.

#### **5. Galde-eskeak**

Kontsultetarako tartea zabaldu du presidenteak, eta Euskal Finantza Lankidetzako prozesuaren inguruan galdetu du losu Urrutiak.

Paul Ortegak, horri erantzunez, azaldu du mintegi bat antolatu zela otsailaren 22an, eta elkarrizketa bati eman zitzaiola hasiera lurraldeko agente guztien artean abiapuntuko egoera, egungo gaitasun eta premiak, eta Euskadin eta Euskadiren ingurunean gertatu diren esperientziak aztertzeke.

Elkarretaratze horren ondoren, adierazten jarraitu duenez, Finantzen Euskal Institutuak, Reas sareak, Fiare fundazioak eta jada antzeko beste proiektu bat duten erakundeek – hala nola Oxfam mugimenduak– osatutako aholkularitza-talde bat eratu da, eta erakunde horiek guztiak hiru eremu handitan daude lanean gaur egun: sentsibilizatzeko modua; hartzaile posibleen azterketa, proiektu pilotu baten diseinua aurrera egiten eta ikasten jarraitzeko.

Azkenik adierazi du aukera bat izan daitekeela biztanleria euskal lankidetzan inplikatzeko.



Ez denez beste gairik proposatu, saioa amaitutzat eman da 14:18an. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE Nerea Melgosa Vega andrea,  
eLankidetzako eta haren Kontseilu  
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektoreko idazkaria  
eLankidetzako zuzendaria